



Beasaingo Udala

		ESP. KODEA CÓD. EXP.	2025UTLE0001
EXPEDIENTEA EXPEDIENTE	<u>Ura eta zabor tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatiko tarifen arloan laguntzak emateko oinarriak</u> <u>Bases para la concesión de ayudas en materia de tasas de agua y basura y tarifas por utilización de los servicios del polideportivo municipal /</u>		
TITULARRA TITULAR	BEASAINGO UDALA		
TOKIA LUGAR	BEASAIN		

URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO TARIFEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2025. URTEA	BASES PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS EN MATERIA DE TASAS DE AGUA Y BASURA Y TARIFAS POR UTILIZACIÓN DE LOS SERVICIOS DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL. AÑO 2025
ZIOEN AZALPENA Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerrriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea. Abenduaren 5eko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 6. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, eta funtsezko helburuak honako hauek dira: a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurrea hartu eta erantzutea. b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurrea hartu eta erantzutea. c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea. d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurrea hartu eta erantzutea. Lehen aipatutako helburuak betetzen	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS La ley 2/2016 de 7 de abril de instituciones locales de Euskadi, en el artículo 17,1 prevé como competencias propias del municipio: Ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social. la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en el artículo 6, indica que la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales es promover, en cooperación y coordinación con otros sistemas y políticas públicas, el bienestar social del conjunto de la población, siendo sus objetivos esenciales los siguientes: a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia. b) Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección. c) Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos. d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia. Al objeto de contribuir al cumplimiento de los



Beasaingo Udala

laguntzeko, ura eta zabor tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatik tarifen arloan laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta: - Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua. -Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14). - Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.2 ildo: baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntzea). Laguntza horiek, azken hamarkadetan onartu eta eman direnak, lehen aipatutako helburuak lortzen laguntzen dute, bai eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonak egoera ekonomiko prekarioago batera igaro ez daitezen ere.	objetivos anteriormente citados, se han elaborado las presentes bases de concesión de ayudas en materia de tasas de agua y basura y tarifas por utilización de los servicios del polideportivo municipal, que más adelante se indicarán, teniendo en cuenta para ello: -La Ley 38/2003 general de subvenciones y su reglamento de desarrollo, aprobado por el Real Decreto 887/2006. -La Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones (BOG, 14/06/2018). -Plan estratégico de subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Beasain (Objetivo estratégico 1: promover la acción social. Línea 1.2: apoyo a personas con recursos económicos escasos). Estas ayudas, que vienen aprobándose y otorgándose durante las últimas décadas, contribuyen al logro de los objetivos previamente citados y a evitar que personas con escasos recursos económicos pasen a una situación económicamente más precaria.
1. XEDEA Oinarri hauen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da: - Ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa. - Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifen ordainketa, ekainetik irailera soilik, biak barne. Laguntzak aurreko ekitaldiko tasen/tarifen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.	1. OBJETO Las presentes bases tienen por objeto desarrollar y aplicar una política municipal de ayudas que sirvan para reducir o anular la carga económica que suponga: - El pago de las tasas de agua y de basura de la vivienda habitual. - El pago de las tarifas por utilización de los servicios del polideportivo municipal, únicamente durante los meses de junio a septiembre, ambos inclusive. La aplicación de las ayudas se realizará sobre los importes correspondientes al pago de las tasas/tarifas del ejercicio inmediatamente anterior.
2. AURREKONTUA 1 0220.480.231.00.01 aurrekontuko kontu sailean 45.000 euroko kreditua esleitu da ura	2. PRESUPUESTO En la partida presupuestaria 1 0220.480.231.00.01 se ha consignado un



Beasaingo Udala

eta zabor tasen eta udal kiroldegiaren zerbitzuen erabiltzeagatiko tarifen arloan laguntzak emateko. Baimendutako gastuaren zenbatekoa (45.000€) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleitura duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.	crédito de 45.000€ para concesión de ayudas en materia de tasas de agua y basura y tarifas por utilización de los servicios del polideportivo municipal El importe del gasto autorizado (45.000 €), podrá ser incrementado con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas por el órgano que tenga atribuida la competencia, por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.
3. ONURADUNAK Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradunak izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira: - Eskatzailea ohiko etxebizitzan bizi eta bertan erroldatuta egotea, laguntzak eskatzen diren egunerako (2024). - Eskatzailearen bizikidetza-unitateak ez du gaingitu behar, aurreko ekitaldian, 4.3 atalean ezarritako urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga.	3. PERSONAS BENEFICIARIAS Podrán ser beneficiarias de las ayudas contempladas en estas bases, aquellas personas solicitantes que reúnan los siguientes requisitos: - Que se trate de vivienda habitual en la que la persona solicitante resida y se encuentre empadronada en la misma, a la fecha para la que se soliciten las ayudas (2024). - La unidad convivencial a la que pertenece la persona solicitante no ha de superar, durante el ejercicio inmediatamente anterior, el límite de ingresos anuales y el límite de patrimonio establecido en el apartado 4.3.
4. DIRU-LAGUNTZAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK ETA HORIEN ZENBATEKOA <u>4.1 Tasen arloko laguntzak lortzeko</u> 1. Egindako gastuaren % 100a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 600 €. 2. Egindako gastuaren % 75a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta	4. CRITERIOS PARA LA DETERMINACIÓN DE LAS SUBVENCIONES E IMPORTE DE LAS MISMAS <u>4.1 Para la obtención de ayudas en materia de tasas</u> 1. El 100 % del gasto realizado, para unidades convivenciales cuyos ingresos anuales netos se incluyan en el límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social y no superen el límite de patrimonio. Importe máximo a conceder 600€ 2. El 75% del gasto realizado, para unidades convivenciales cuyos ingresos anuales netos se hallen entre el 1 y 1,5 del límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social y no superen el límite de patrimonio. Importe máximo a conceder



Beasaingo Udala

ondarearen muga gainditzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 500 €. 3. Egindako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1,5 eta 2 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 400€ 4. Bizikidetza-unitateetat hartuko dira etxebizitza erroldatutako pertsona guztiak, laguntzak eskatzen diren egunerako (2024). 5. Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra egin ahal izango da.	500€. 3. El 50% del gasto realizado, para unidades convivenciales cuyos ingresos anuales netos se hallen entre el 1,5 y 2 del límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social y no superen el límite de patrimonio. Importe máximo a conceder 400€. 4. Se entenderá por unidad convivencial a la totalidad de las personas empadronadas en la vivienda, a la fecha de solicitud de las ayudas (2024). 5. Únicamente se podrá realizar una solicitud por vivienda.
<u>4.2 Udal kirodegiko zerbitzuen erabiltzeagatik tarifa arloko laguntzak jasotzeko</u> 1. Egindako gastuaren % 80a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira. 2. Egindako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute. 3.- Ekainetik irailera bitarteko tarifak baino ez dira diruz lagunduko. 4.- Bizikidetza-unitatea zehazteko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25. eta 26. Artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. <u>4.3 Urteko dirusarrerak eta ondarearen muga</u> Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga 2024. urtea, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengoa da:	<u>4.2 Para la obtención de ayudas en materia de tarifas por utilización de los servicios del polideportivo municipal</u> 1. El 80 % del gasto realizado, para unidades convivenciales cuyos ingresos anuales netos se incluyan en el límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social y no superen el límite de patrimonio. 2. El 50% del gasto realizado, para unidades convivenciales cuyos ingresos anuales netos se hallen entre el 1 y 1,5 del límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social y no superen el límite de patrimonio. 3.- Únicamente se subvencionarán las tarifas correspondientes a los meses de junio a septiembre. 4.- Para determinar la unidad convivencial, se estará a lo dispuesto en el ar. 25 y 26 de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión. <u>4.3 Límite de ingresos anuales y de patrimonio</u> El Límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social año 2024 según tamaño de la unidad convivencial es:



Beasaingo Udala

- 1 pertsona: 15.132,24 € - 2 pertsona: 20.176,38€ - 3 edo gehiago: 23.202,90 € Laguntza hauetarako ezarritako ondarearen muga, bizikidetza-unitatearen tamainaren arabera, honako hau da: - 1 pertsona: 20.000€ - 2 pertsona: 25.000€ - 3 edo gehiago: 30.000€	- 1 persona: 15.132,24 € - 2 personas: 20.176,38€ - 3 o más personas: 23.202,90 € El límite de patrimonio, establecido para estas ayudas, según tamaño de la unidad convivencial es: - 1 persona: 20.000€ - 2 personas: 25.000€ - 3 o más personas: 30.000€
5. DIRU-SARREREN ETA ONDAREAREN ZENBAKETA Eskatzaileak eta bere elkarbizitza unitateko kideak 2024. ekitaldi ekonomikoan izandako urteko diru-sarrera garbiak zenbatuko dira. Kontutan hartuko dira: a) Urtean lortutako diru-sarrera garbiak: laneko etekinak, pentsioak, prestazioak edota laguntzak. b) Ondasun higikorra. Elkarbizitza unitateak ondasun higiezinak (2. Etxebizitza edo lokalak) %100aren jabetzan baditu, ez ditu laguntza hauek jasoko. Ohizko etxebizitza ez da kontutan hartzen.	5. CÓMPUTO DE INGRESOS Y DE PATRIMONIO Se computarán los ingresos anuales netos percibidos tanto por la persona solicitante y demás miembros de la unidad convivencial, durante el ejercicio económico 2024. Se tendrán en cuenta: a) Los ingresos netos anuales obtenidos por: rendimientos de trabajo, pensiones, prestaciones y/o ayudas. b) El capital mobiliario. Si la unidad convivencial dispone de patrimonio inmobiliario (2ª vivienda, locales) cuya titularidad sea del 100%, no podrá acceder a estas ayudas. Queda exenta de contabilizar la vivienda habitual.
6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalarik jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera diru-laguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.	6. COMPATIBILIDAD DE LAS SUBVENCIONES Las subvenciones contempladas en estas bases serán compatibles con las concedidas por otras entidades, en cuyo caso deberán comunicarse al Ayuntamiento. Sin embargo, en ningún caso puede haber sobrefinanciación, es decir, la cantidad concedida en concepto de subvención junto con otras entidades no puede ser superior al valor del gasto.
7. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK Eskaerak aurkeztuko dira: Aurrez aurre iGunean: jendeaurreko ordutegia	7. SOLICITUDES Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR Las solicitudes se presentarán: Presencialmente iGunea: horario de atención al público.



Beasaingo Udala

Posta arruntaren bidez Telematikoki: www.beasain.eus Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da: a) Eskaera orria, behar bezala beteta eta sinatuta (I eranskina). b) NANik edo AIZrik ez badu, eskatzailearen pasaporte eta berarekin errolatuta eta elkarbizitza unitatea osatzen dutenena. Kasu horretan, horien guztien egoera ekonomikoa egiaztatu beharko da. c) Zabor-tasa ordaindu izanaren egiaztagiria, etxebizitzaren jabea ez izanik tasa ordaindu duen kasuetan bakarrik. d) Ur tasa ordaindua izan den ordainagiria. Fakturazioa eraikinekoa denean, eraikineko fakturak eta eskatzaileari dagokion kontsumo-zatiaren agiria (II eranskina). e) Udal kiroldegiko zerbitzuen erabileragatik ordaindutako tarifaren ordainagiria (ekaina-iraila).	Por correo postal Telemáticamente: www.beasain.eus La documentación a presentar será la siguiente: a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado (Anexo I). b) En caso de no tener DNI o NIE, pasaporte de la persona solicitante y de las que se hallen empadronadas y constituyan la unidad convivencial. En este caso se deberá acreditar la situación económica de todas ellas. c) Justificante de pago de la tasa de basura, sólo en aquellos casos en los que no siendo propietario/a de la vivienda, haya abonado la tasa. d) Justificante de pago de la tasa de agua. En aquellos casos en los que la facturación sea comunitaria, facturas de la comunidad y desglose de consumo que corresponda a la persona solicitante (Anexo II). e) Justificante de pago de la tarifa por utilización de los servicios del polideportivo municipal (junio-septiembre).
8. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA. 1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez. 2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko	8. DOCUMENTACIÓN INTEROPERABLE Y VERIFICABLE 1. La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello. 2. El Ayuntamiento de Beasain forma parte



Beasaingo Udala

administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu. 3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira: a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-AIZ, datuak eta egiaztapena. b) Gipuzkoako Foru Aldundia: - PFEZ - Kontuak - Ondasun higiezinak - Ondarea -Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak. 4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa. 5.Oinarri hauetan jasotako laguntzen eskatzailea Beasaingo Udalak aurreko ekitaldian emandako gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izan bada, eskaera-orria eta laguntzaren xede diren tasak/tarifak ordaindu izanaren egiaztagiria baino ez ditu aurkeztu beharko. 6. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak	del nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, el Ayuntamiento de Beasain hará uso de aplicaciones de la red corporativa foral u otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos. 3. Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae) o de acceso público serán los siguientes: a) Dirección General de la Policía: DNI-NIE, datos y verificación. b) Diputación Foral de Gipuzkoa: - IRPF - Cuentas - Bienes Inmuebles - Patrimonio -Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral. c) Tesorería General de la Seguridad social: Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con la Seguridad Social. d) Instituto Nacional de la Seguridad Social: Prestaciones sociales públicas. 4. En el caso de que la persona solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación. 5. Si la persona solicitante de las ayudas recogidas en estas bases ha sido beneficiaria de las Ayudas de Emergencia Social, otorgadas por el Ayuntamiento de Beasain en el ejercicio inmediatamente anterior, únicamente deberá presentar el impreso de solicitud y justificante de pago de las tasas/tarifas para las que solicita la ayuda. 6. Si el Ayuntamiento comprobara que la
--	--



Beasaingo Udala

aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe	documentación presentada por la persona solicitante fuese incompleta o insuficiente concederá a la misma un plazo de 10 días hábiles para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual, sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite.
9. ESKAERA EGITEKO EPEA Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratzen direnean, eskaerak aurkezteko epea irekiko da 2025eko irailaren 1etik 30era. Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.	9. PLAZO DE SOLICITUD Las bases se remitirán a la BDNS y tras su publicación en el BOG se abrirá el plazo para presentar solicitudes, desde el 1 al 30 de septiembre de 2025. Toda solicitud formulada fuera del plazo establecido será denegada.
10. AZTERKETA ETA EBAZPENA Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 3 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.	10. VALORACIÓN Y RESOLUCIÓN Será la subárea de Bienestar Social del Ayuntamiento quien valore los expedientes de solicitud de ayudas y la Alcaldesa quien resuelva. Se notificará a las personas interesadas la resolución que se adopte en el plazo máximo de 3 meses una vez finalizado el período de presentación de solicitudes.
11. UDAL ZORRAREN KONPENTSAZIOA Laguntza hauen onuraduna Udal Ogasunekiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.	11. COMPENSACIÓN DE DEUDA MUNICIPAL Cuando la persona beneficiaria de estas ayudas sea deudora de la Hacienda Municipal con motivo de una deuda vencida, líquida y exigible, el Ayuntamiento procederá a la compensación de la misma.
12. ORDAINTZEKO MODUA Dagokion laguntza hiru hilabeteko epean ordainduko da, ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita.	12. PROCEDIMIENTO DE PAGO Se procederá al pago de la ayuda correspondiente en el plazo de tres meses contados desde la fecha de resolución.
13.- ARAU-HAUSTEAK Datuak ezkutatzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.	13.- INFRACCIONES Las infracciones por ocultar datos o fraude en las condiciones que dan derecho a las ayudas municipales establecidas en las presentes bases, darán lugar a la revocación de la ayuda concedida y a la devolución de los importes correspondientes por parte de las personas beneficiarias.



Beasaingo Udala

14.- DATUEN BABESA Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.	14.- PROTECCIÓN DE DATOS El tratamiento de datos de las personas solicitantes se realizará cumpliendo lo establecido en Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre.
15.- APLIKATUKO DEN ARAUDIA Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.	15.- NORMATIVA DE APLICACIÓN Para todo aquello que no esté previsto en esta convocatoria, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
16.- EBAZPENA ETA HELEGITEAK Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko. Honako oinarri hauen aurka berraztertzeke errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean. Aipatu epeak oinarri hauek GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.	16.- RESOLUCIÓN Y RECURSOS Esta convocatoria tiene carácter administrativo, por lo que el Ayuntamiento tiene la potestad para su interpretación y la resolución de cualquier incidencia que pudiera surgir de su aplicación o resolución. Contra las presentes bases podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el BOG.



Beasaingo Udala

I ERANSKINA / ANEXO I

**URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO
TARIFEN ARLOAN LAGUNTZA ESKAERA / SOLICITUD DE AYUDAS EN MATERIA DE
TASAS DE AGUA Y BASURA Y TARIFAS POR UTILIZACIÓN DE LOS SERVICIOS DEL
POLIDEPORTIVO MUNICIPAL**

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA

PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD:

Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos		NAN edo IFZ / DNI o CIF	
GENEROA / GÉNERO: ☐ Emakumea / Mujer ☐ Gizona / Hombre ☐ Ez bitarra / No binario			
☐ Interesduna naiz / Soy la persona interesada			
☐ Ordezkaria naiz / Soy representante		Honako hau ordezkatzten dut / Represento a:	
Ordezkatuaren NAN / IFK-a / DNI / NIF del representado/a:			
JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES			
☐ Elektronikoki (<u>ZIURTAGIRI DIGITALA BEHAR DA</u>) / Electrónicamente (<u>SE NECESITA CERTIFICADO DIGITAL</u>)			
e-posta (abisuetarako) / e-mail (para avisos):			
☐ Posta arruntaz / Por correo ordinario			
Kalea / Calle	Zk./N.º	Solairua/Piso	Aldea/Mano
P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia	e-posta / e-mail
HIZKUNTZA / IDIOMA: ☐ Euskara / Euskara ☐ Elebietan / Bilingüe			

ESKATZEN DEN LAGUNTZA / AYUDA QUE SE SOLICITA

Ura tasaren arloan / En materia de tasa de agua ☐

Zabor tasaren arloan / En materia de tasa de basura ☐



Beasaingo Udala

Kiroldegigo zerbitzuen erabileragatik tarifen arloan/

En materia de tarifas por utilización de los servicios del polideportivo



Aurkeztu beharreko agiriak: / Documentos a presentar:

- **NANik edo AIZrik ez badu, eskatzailearen pasaporte eta berarekin erroldatuta eta elkarbizitza unitatea osatzen dutenena. Kasu horretan, horien guztien egoera ekonomikoa egiaztatu beharko da** / En caso de no tener DNI o NIE, pasaporte de la persona solicitante y de las que se hallen empadronadas y constituyan la unidad convivencial. En este caso se deberá acreditar la situación económica de todas ellas.-----☐

- **Zabor-tasa ordaindu izanaren egiaztagiria, etxebizitzaren jabea ez izanik tasa ordaindu duen kasuetan bakarrik** / Justificante de pago de la tasa de basura, sólo en aquellos casos en los que no siendo propietario/a de la vivienda, haya abonado la tasa.-----☐

- **Ur tasa ordaindua izan den ordainagiria. Fakturazioa eraikinekoa denean, eraikinaren fakturak eta eskatzaileari dagokion kontsumo zatiaren agiria** / Justificante de pago de la tasa de agua. En aquellos casos en los que la facturación sea comunitaria, facturas de la comunidad y desglose de consumo que corresponda a la persona solicitante (Anexo 2) -----☐

- **Udal kiroldegiko zerbitzuen erabileragatik ordaindutako tarifaren ordainagiria (ekaina-iraila)** / Justificante de pago de la tarifa por utilización de los servicios del polideportivo municipal (junio-septiembre) -----☐

Dirulaguntza ordaintzeko banketxeko datuak, onartua den kasurako: / Datos bancarios para el abono de la subvención, en el caso de ser concedida:

Kontuaren titularra: / Titular cuenta: _____ **NA-zk.:** / DNI, nº: _____

Banketxea: / Entidad: _____ **Bulegoa:** / Oficina: _____

Kontu-zk.: / Nº cuenta: _____

Behean izenpetzenduenak ZIN EGITEN DU:

- **Ez duela inolako debekurik dirulaguntza publikorik jasotzeko.**
- **Ura eta zabor tasentzako eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabileragatik tarifentzak beste erakundeetik dirulaguntzak jaso dituela:**

Erakundea _____
Zenbatekoa _____

El/la abajo firmante, DECLARA:

- Que no incurre en causas legales para obtener subvenciones públicas.
- Que para las tasas de agua y basura y tarifas por utilización de los servicios del polideportivo municipal, ha recibido subvenciones de otras entidades:

Entidad _____
Importe _____



Beasaingo Udala

39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak zuzenean kontsultatuko du, pertsona edo erakunde interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento consultará directamente, salvo que la persona o entidad interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, los datos para verificar el cumplimiento de los requisitos de acceso a la ayuda.

Honako datuak eskuratuko dira / Se obtendrán los siguientes datos:

- **Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-NIE, datuak eta egiaztapena /** Dirección General de la Policía: NA-NIE, datos y verificación.

- **Gipuzkoako Foru Aldundia /** Diputación Foral de Gipuzkoa:

- **PFEZ /** IRPF

- **Kontuak /** Cuentas

- **Ondasun higiezinak /** Bienes inmuebles

- **Ondarea /** Patrimonio

- **Zerga betebeharretan Ogasunarekin egunean egotea /** Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.

- **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra /** Tesorería General de la Seguridad Social

- **Zerga betebeharretan Gizarte Segurantzarekin egunean egotea /** Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con la Seguridad Social.

- **Gizarte Segurantzako Institutu nazionala /** Instituto Nacional de la Seguridad Social:

- **Gizarte prestazio publikoak /** Prestaciones sociales públicas.

Eskaera hau egiten duenak jakinarazi die bizikidetza unitatean sartua dauden familia kideei zerbitzu honetarako goian aipatutako beraien datuak begiratuko direla. / Quien realiza esta solicitud ha comunicado a los familiares que se encuentran en la unidad de convivencia que para este servicio se consultarán los datos arriba mencionados.



Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut / Me opongo y apporto la documentación requerida.

Tokia eta data / Lugar y fecha

Sinadura / Firma



Beasaingo Udala

Legezko Ohar Eredua Informazioa Emateko Betebeharra		Modelo de Nota Legal Obligación de facilitar información	
Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa			
Tratamenduaren Arduraduna	Beasaingo Udala Loinazko San Martin plaza 1, 20200, Beasain (Gipuzkoa) Datuen Babesteko Ordezkarria: datubabesa@beasain.eus	Responsable del tratamiento	Ayuntamiento de Beasain Loinazko San Martin plaza 1, 20200, Beasain (Gipuzkoa) Delegado/a de protección de datos: datubabesa@beasain.eus
Helburua	Udalak pertsona fisikoei, elkarteei eta erakundeei ematen dizkien subentzio eta diru-laguntzak izapidetzeko beharrezkoa den informazio pertsonala kudeatzeko tratatzen dira.	Finalidad	Gestionar la información personal derivada de las diferentes ayudas y subvenciones que otorga el ayuntamiento a personas físicas, asociaciones y entidades.
Zilegitasuna	Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8.1 eta 2. artikulua: legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua.	Legitimación	Artículos 8.1 y 2 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales: tratamiento de datos personales en cumplimiento de obligaciones legales y en cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos.
Komunikazioen hartzailak	Datuak Gizarte Segurantzari, zerga-administrazio eskudunei eta arlo horretan eskumena duten beste administrazio publiko batzuei jakinaraz dakizkieke.	Comunicación de datos	Tus datos se podrán comunicar a las administraciones tributarias competentes y a otras administraciones públicas con competencia en la materia.
Eskubideak	Datuetara sarbidea izateko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubidea duzu, informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Halaber, kontrol-agintaritzak eskudunari erreklamazio bat aurkezteko aukera izango duzu betiere.	Derechos	Tienes derecho a ejercer tus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación. Asimismo, podrás presentar una reclamación ante la autoridad de control competente.
Informazio gehigarria	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: https://www.beasain.eus/datuen-babesa	Información adicional	Puedes consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: https://www.beasain.eus/proteccion-datos



Beasaingo Udala

II ERANSKINA / ANEXO II

**UR KONTSUMO ZATIAREN AGIRIA
JUSTIFICANTE DE DESGLOSE DEL CONSUMO DE AGUA**

_____ J.ak/A.ak	D./Dña.: _____
_____ kalean _____ zk.an	Administrador/a del inmueble de la
_____ etxebizitza dituen ondasun	calle _____ nº _____
higiezinaren administratzaile legez, ziurtatu	que cuenta con nº de viviendas _____
egiten dut 2024. urtean zehar	certifico que durante el año 2024, D./Dña. _____
_____ J.ak/A.ak, ura	_____
kontzeptuagatik _____ € ordaindu	Abonó en concepto de agua la cantidad de
zituela.	_____ €

Beasainen, _____

Sin/Fdo.: Administratzailea / El/La Administrador/a